



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

HAUTAKETA-PROZESUA

ARTXIBOKO TEKNIKARIA

Lehenengo ariketa

2025-03-10



Lehenengo proba:

1 Noiz hasiko dira prozedurak ofizioz?

- 1a) Salaketagatik.
- 1b) Organo eskudunaren aginduz.
- 1c) Norbere ekimenez.
- 1d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

2 Informazio publikoari buruzko zer informazio da OKERRA?

- 2a) Izapide horretan ez agertzeak interesdunei eragotzi ahal izango die prozeduraren behin betiko ebazpenaren aurka dagozkien errekurtsioak aurkeztea.
- 2b) Ebazpena eman behar duen organoak, hala eskatzen badu prozeduraren izaerak, erabaki dezake informazio publikorako aldi bat izatea.
- 2c) Informazio publikoaren izapidean agertzeagatik ez da inor, besterik gabe, interesdun bihurtzen.
- 2d) Izapide horretan alegazioak edo oharak aurkezten dituztenek Administrazioaren erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea dute; erantzun bakarra eman dakieke funtsean arazo bera agertzen duten alegazio guztiei.

3 Zein da gaur egun Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea?

- 3a) 30/1992 Legea, azaroaren 26koa.
- 3b) 35/2005 Legea, urriaren 4koa
- 3c) 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa.
- 3d) 1/2015 Legea, irailaren 8koa

4 Datu hauetatik ZEIN EZ DA NAHITAEZKOA agertzea prozedura hasteko eskaeretan interesdunen aldetik?

- 4a) Telefono-zenbakia.
- 4b) Egitateak, arrazoiak eta eskaera zehatza, argi eta garbi adierazirik.
- 4c) Administrazioko zer organo, erakunde edo unitateri zuzentzen zaion, eta zein den haren identifikazio-kodea.
- 4d) Eskatzailearen sinadura, edo benetan bere borondatea adierazi duela erakusteko edozein eratako egiaztapena.



5 Non aurkeztu ahal izango dituzte interesdunek administrazio publikoetako organoetara zuzentzen dituzten dokumentuak?

- 5a) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.
- 5b) Zuzentzen zaizkion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan.
- 5c) Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.
- 5d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

6 Txostenak, espresuki kontrakoa xehatzen ez bada, honelakoak izango dira:

- 6a) Lotesleak.
- 6b) Lotesleak eta aukerakoak.
- 6c) Aukerakoak eta ez-lotesleak.
- 6d) Inoiz ez aukerakoak.

7 Txostenak epe honetan egingo dira, non eta xedapenen batek edo prozeduraren gainerako epeak betetzeak ez duen ahalbidetzen edo eskatzen epea luzeagoa edo laburragoa izatea:

- 7a) Hamar egun.
- 7b) Hamabost egun.
- 7c) Hogei egun.
- 7d) Hilabete.

8 Zein da prozedura amaitzeko modu normala?

- 8a) Amaiera itundua.
- 8b) Administrazio-isiltasuna.
- 8c) Ebazpena.
- 8d) Eskareren oinarri den eskubideari uko egitea.

9 Arau-hauste administratiboak honela sailkatzen dira legearen arabera:

- 9a) Astunak eta arinak.
- 9b) Arinak, astunak eta oso astunak.
- 9c) Arinak, astunak, ez hain astunak eta oso astunak.
- 9d) Oso astunak, astunak eta ez hain astunak.

10 Oro har, arau-hauste astunek zenbateko epean preskribatuko dute?



- 10a) Urtebeteko epean.
- 10b) Bi urteko epean.
- 10c) Hiru urteko epean.
- 10d) Bost urteko epean.

11 Udal-antolakuntza arau hauen araberakoa da:

- 11a) Udal guztietan alkatea, alkateordeak eta osoko bilkura daude.
- 11b) Udal guztietan alkatea, Tokiko Gobernu-Batzarra eta osoko bilkura daude.
- 11c) Udal guztietan alkatea eta osoko bilkura daude.
- 11d) Udal guztietan alkatea eta Tokiko Gobernu-Batzarra daude.

12 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 41. artikulua arabera, jakinarazpenak, ahal dela, honela egingo dira:

- 12a) Postaz.
- 12b) Telefonoz.
- 12c) Bitarteko elektronikoz.
- 12d) Administrazioarentzako bitarteko azkarrena eta ekonomikoena erabiliz.

13 Emakumeei haurdunaldiarengatik edo amatasunarengatik tratu kaltegarria ematea zertzat hartzen da?

- 13a) Sexu-jazarpentzat.
- 13b) Sexuan oinarritutako jazarpentzat.
- 13c) Sexuan oinarritutako zuzeneko diskriminaziotzat.
- 13d) Sexuan oinarritutako zeharkako diskriminaziotzat.

14 Tokiko Gobernu-Batzarra alkateak eta zinegotzi-kopuru jakin batek osatzen dute; zinegotzi-kopurua:

- 14a) Ez da zinegotzien legezko kopuruaren herena baino handiagoa.
- 14b) Ez da zinegotzien legezko kopuruaren erdia baino handiagoa.
- 14c) Ez da zinegotzien legezko kopuruaren bi heren baino handiagoa.
- 14d) Erantzun bat bera ere ez da zuzena.

15 Alkateak eskumena du:

- 15a) Bandoak eman eta araudiak onartzeko.
- 15b) Enplegu publikoaren eskaintza eta lanpostuen zerrenda onartzeko.



- 15c) a) eta b) zuzenak dira.
- 15d) Bat bera ere ez da zuzena.

16 Nork du Udala ordezkatzeko eskumena?

- 16a) Alkateak.
- 16b) Osoko Bilkurak.
- 16c) Tokiko Gobernu-Batzarrak
- 16d) Alkateordeek, dagokien eskumen-esparruan

17 Zer izenez ezagutzen da egoitza elektronikoa, zeinaren bidez Administrazio Publikoaren hainbat egoitza elektronikotako zerbitzuetarako eta prozeduretarako sarbidea errazten den, Administrazio Prozedura Erkidearen Legean?

- 17a) Irispide Puntu Orokorra.
- 17b) Erreferentziazko Bulego Birtuala.
- 17c) Erregistro Elektronikoa Orokorra.
- 17d) Atari-egoitza.

18 Zer aldizkakotasunekin egiten dira ezohiko bilkurak?

- 18a) Gutxienez hilean behin, 20.000 biztanletik gorako udalerrietako udaletan.
- 18b) Bi hilabetetik behin, 5.001-20.000 bitarteko biztanle-kopurua duten udalerrietako udaletan.
- 18c) Ezohiko bilkurek ez dute aldizkakotasun jakinik.
- 18d) Hiru hilabetetik behin, 5.000 biztanle arteko udalerrietan.

19 Administrazio-ekintza legezkotasun-printzipioren mende dago

- 19a) Beti.
- 19b) Araututako ekintzak direnean.
- 19c) Kasuaren arabera.
- 19d) Ez, nahitaez.

20 Nork du Osoko Bilkura bateko akta egiteko ardura?

- 20a) Udalbatzaren presidentek.
- 20b) Bilkuran bertan izendatutako bertako kideek.
- 20c) Idazkari Nagusiak.
- 20d) Aurreko aukeretan aipatutako edozeinek.



Bigarren proba:

21 Espediente elektronikoaren metadatuaren artean, zein EZ da beharrezkoa dokumentu elektronikoaren kudeatzeko, metadatuaren Eskemaren arabera?

- 21a) Organoa
- 21b) Hasiera-data
- 21c) Amaiera-data
- 21d) Identifikatzailea

22 Dokumentu elektronikoaren Elkarreragingarritasunerako Arau Teknikoak balio-zerrenda bat ezartzen du Dokumentu Erako metadatuaren dokumentu elektronikoei esleitzeko. Hauetatik, zein dago zerrenda horretan?

- 22a) Baimena
- 22b) Sententzia
- 22c) Dekretua
- 22d) Atzemandako beste batzuk

23 Espediente elektroniko baten dokumentuak era honetan sar daitezke bertan: Adierazi zein den erantzun OKERRA.

- 23a) Azpikarpetetan multzokatuta, izapidetzearen fase ezberdinen arabera.
- 23b) Funtzionaltasun-arrazoi batengatik sortutako dokumentu-multzo baten barruan.
- 23c) Beste baten barruan txertatutako azpiespediente elektroniko baten parte gisa.
- 23d) Zuzenean, elementu independente gisa.

24 Dokumentuak Digitalizatzeko Elkarreragingarritasunerako Arau Teknikoak ezarritako betekizunen artean, irudi elektronikoetarako gutxieneko bereizmen-maila hauxe izango dela ezartzen da:

- 24a) 200 pixel hazbeteko, zuri-beltzean, koloretan edo grisen eskalan lortutako irudietarako.
- 24b) 150 pixel hazbeteko, zuri-beltzean lortutako irudietarako, eta 200 pixel hazbeteko, koloretan eta griseko eskalan lortutako irudietarako.
- 24c) 200 pixel hazbeteko, zuri-beltzean eta grisen eskalan lortutako irudietarako, eta 300 pixel hazbeteko, koloretan lortutako irudietarako.



24d) Ez da gutxieneko bereizmenik ezartzen. Administrazio bakoitzak dokumentuaren edukiaren arabera ezartzen du.

25 Paper-euskarrian edo bitarteko fotoelektrikoen bidez digitaliza daitekeen beste euskarri ez-elektroniko batean dauden dokumentuen kopia elektronikoko kautoei «Paper-dokumentuaren kopia elektronikoko kautoa» balioaren berri emango dute honako metadatu honetan:

- 25a) Elaborazio-egoera
- 25b) Trazabilitatea
- 25c) Bertsioa
- 25d) Formatua

26 Dokumentu elektronikokoak Kudeatzeko Politikaren Elkarreragingarritasun Arau Teknikoak honako prozesu hauek definitzen ditu, besteak beste:

- 26a) Sortzea, Erregistratzea, Iristea eta Kontserbatzea
- 26b) Atzematea, Erregistratzea, Sailkatzea eta Ordeztea
- 26c) Atzematea, Erregistratzea, Sailkatzea eta Iristea
- 26d) Sortzea, Atzematea, Erregistratzea eta Deskribatzea

27 Eusko Jaurlaritzako Dokumentu Kudeaketaren eremuan, zer esan nahi du PLATEA-k?

- 27a) Erkidegoko kudeaketa elektronikorako plataforma teknologikoa
- 27b) Espediente elektronikokoak sortzeko plataforma elektronikoa
- 27c) E-administrazioarako plataforma teknologikoa
- 27d) Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren plataforma elektronikoa

28 Zer da PARES?

- 28a) Espainiako Sareko Artxiboen Ataria.
- 28b) Espainiako Dokumentu Ondare Historikoa hedatzeko plataforma nagusia.
- 28c) Kultura Ministerioko Artxiboen Errolda Gidan jasotako Espainiako artxiboen Ataria.
- 28d) Espainiako Estatuko Artxiboetako dokumentu digitalizatuak hedatzeko plataforma.

29 Zer erakunde publikoren artxibo-sistema EZ dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen Sistemari, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu Kudeaketa Integralari eta Dokumentu Ondareari buruzko ekainaren 23ko 5/2022 Legeak ezartzen duen bezala?



- 29a) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa
- 29b) Gipuzkoako Batzar Nagusiak
- 29c) Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
- 29d) Euskal Herriko Unibertsitatea

30 Dokumentu-funts hauetatik, zein gordetzen da Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan?

- 30a) Tolosako Barruti Judizialeko hipoteken kontabilitate-liburuak
- 30b) Gipuzkoako Korrejimenduaren auziak
- 30c) Donostiako Bigarren Hezkuntzako Institutuaren dokumentazioa
- 30d) Tolosako Notario Barrutiko notario-protokoloak

31 Artxibo Judizialak Modernizatzeko uztailaren 18ko 937/2003 Errege Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, nork du eskumena zehazteko zer egoitza eta osaera izango duen Espurgo-Batzarrak, zeinak bere eginkizunak betetzen dituen autonomia erkidegoko prozedura judizialean?

- 31a) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak
- 31b) Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak
- 31c) Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak
- 31d) Eusko Jaurlaritzako justizia arloko eskumena duen sailak

32 Artxibo hitzaren definizioa.

- 32a) Dokumentuak gordetzen dituen eraikina edo lokala.
- 32b) Dokumentuen gestioaz eta zaintzaz arduratzen den zerbitzua.
- 32c) Entitate bateko funtsen edo dokumentuen multzoa.
- 32d) Hiru erantzunak dira zuzenak.

33 Administrazio-dokumentuaren tipologia, deklarazio motaren arabera.

- 33a) Erabaki-dokumentua, transmisio-dokumentua, egiaztatze-dokumentua eta judizio-dokumentua.
- 33b) Hasiera-dokumentua, instrukzio- dokumentua eta amaiera-dokumentua.
- 33c) Hasiera- eta amaiera-dokumentua.
- 33d) Erabaki-dokumentua.

34 Dokumentu hitzaren definizioa, 5/22 Legearen 3d) artikulua arabera



- 34a) Informazio-unitate bat –izaera bakarrekoa eta edozein euskarri edo formatutan egon daitekeena–, zeinaren eduki egituratua eta testuinguruan kokatua pertsona fisiko eta juridikoen ekintzen, erabakien eta funtzioen froga eta ebidentzia gisa aurkezten baita, datu-baseak eta beste edozein motatako objektu elektronikoak barne direla.
- 34b) Idatzizko dokumentu edo inprimaki bat, zerbaiten informazioa edo zerbaiten froga ematen duena.
- 34c) Informazio-unitate bat –izaera bakarrekoa eta edozein euskarri edo formatutan egon daitekeena–, zeinaren eduki egituratua eta testuinguruan kokatua pertsona fisikoen ekintzen, erabakien eta funtzioen froga eta ebidentzia gisa aurkezten baita.
- 34d) Informazio-unitate bat –izaera bakarrekoa eta edozein euskarri edo formatutan egon daitekeena–, zeinaren eduki egituratua eta testuinguruan kokatua pertsona juridikoen ekintzen, erabakien eta funtzioen froga eta ebidentzia gisa aurkezten baita.

35 Modu hauetan sar daitezke dokumentuak artxibo-sistemetan:

- 35a) ohiko transferentzien bidez.
- 35b) ezohiko transferentzien bidez.
- 35c) dohaintzen bidez.
- 35d) Hirurak dira zuzenak.

36 Schellenberg-en arabera, sailkapen-koadroak hauek islatu behar ditu:

- 36a) erakundearen funtzioak, jarduerak eta eragiketak.
- 36b) erakundearen organigrama.
- 36c) sailkapen organikoaren eta funtzionalaren arteko nahasketa bat izan behar du.
- 36d) erantzun guztiak dira okerrak.

37 ISAD (G) Arauaren arabera, hauek dira hainbat mailatako deskribapenaren arauak:

- 37a) Orokorretik xehera deskribatzea, eta informazio egokia ematea deskribapen-mailarako.
- 37b) Informazio egokia ematea deskribapen-mailarako, deskribapenak lotzea eta informazioa ez errepikatzea.
- 37c) Orokorretik xehera deskribatzea, informazio egokia ematea deskribapen-mailarako, deskribapenak lotzea eta informazioa ez errepikatzea.
- 37d) Orokorretik xehera deskribatzea, informazio egokia ematea deskribapen-mailarako, eta informazioa ez errepikatzea.



38 ISAD (G) Arauaren arabera, hauek dira deskribapenaren nahitaezko eremuak:

- 38a) Izenburua, datak. Ekoizlea.
- 38b) Erreferentzia-kodea (signatura), izenburua, datak.
- 38c) Izenburua, deskribapen-maila eta datak.
- 38d) Erreferentzia-kodea (signatura), izenburua, datak, deskribapen-maila, deskribapen-unitatearen kopurua eta euskarria, eta ekoizleak.

39 CNEDA (2017ko edizioa) artxibo-deskribapenerako eredu kontzeptualaren arabera, hauek dira identifikatutako entitate motak:

- 39a) Artxibo-dokumentua, eragilea, funtzioa, araua, kontzeptua, objektua edo gertaera eta data.
- 39b) Artxibo-dokumentua, funtzioa, araua, tokia.
- 39c) Artxibo-dokumentua, eragilea, funtzioa, araua, kontzeptua, objektua edo gertaera eta data.
- 39d) Artxibo-dokumentua, eragilea, funtzioa eta data.

40 CNEDA (2017ko edizioa) artxibo-deskribapenaren kontzeptu-ereduan 10 erlazio mota daude entitateen artean. Lekukotza-erlazioa zer entitaterekin erabiltzen da?

- 40a) Artxibo-dokumentua eta artxibo-dokumentua
- 40b) Eragilea, eta funtzioa eta haren sailkapenak.
- 40c) Artxibo-dokumentua, eta funtzioa eta haren sailkapenak
- 40d) Eragilea eta eragilea.

41 Dokumentu elektronikoaren kudeaketarako Metadatuaren Eskemaren arabera (2. bertsioa), zein dira dokumentu-entitatearen kategoriak?

- 41a) Funts-taldea, seriea, espediente eta dokumentu soila.
- 41b) Funts-taldea, funtsa, seriea, agregazioa, espediente eta dokumentu soila.
- 41c) Funtsa, seriea, agregazioa eta dokumentu soila.
- 41d) Bat bera ere ez da zuzena.

42 “Sailkapen-kodea” serie-deskribapenaren metadatu bat da?

- 42a) Bai, eta ez da heredagarria maila baxuagoetara
- 42b) Bai, eta heredagarria eta automatikoki betetzekoa.
- 42c) Ez, espedientearen metadatu bakoitzeko ez dagokie
- 42d) Bat bera ere ez



43 Adierazi zer dokumentu-serie ez dagoen erlazionatuta hiri-lurraldearen antolamendu orokorrarekin

- 43a) Partzelazioen espedienteak
- 43b) Planeamenduaren arau subsidiarioak eta osagarriak
- 43c) Jarduera--lizentzia
- 43d) Urbanizazio-planak

44 Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazioaren Balioespenerako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordeak (Covasade) funtzio hauek ditu:

- 44a) Lankidetzan jardutea Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearekin, irakaskuntza-erakundeekin eta dokumentu-kudeaketa integralaren eta artxiboen arloko prestakuntza ematen edo sustatzen duten beste entitate batzuekin.
- 44b) Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu Ondareari buruzko deklarazio- eta kanporatze-prozeduretan irizpenak egitea.
- 44c) Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentazioa espurgatzea.
- 44d) Paperezko dokumentuen ordez kopia elektronikoko kautoak erabiltzeko proposamenak –eta, beraz, paperezko jatorrizkoak suntsitzekoak– aztertzea eta baliozkotzea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu Ondarearen parte ez den dokumentazioa denean.

45 Tesauroak dira

- 45a) Dokumentu-hizkuntza libreak.
- 45b) Dokumentu-hizkuntza kontrolatuak.
- 45c) Goiburu-zerrendak
- 45d) Aurrekoetako bat bera ere ez.

46 Zein da ingurumen-faktorarik garrantzitsuena gordailu baten kontrolean, papera behar bezala kontserbatzeko?

- 46a) Hezetasuna
- 46b) Argia
- 46c) Manipulazioa
- 46d) Lapurretak

47 OAIS ereduak



- 47a) Dokumentuen (izan paperezkoak izan digitalak) kudeatzaileen nahitaezko erantzukizunak bakarrik identifikatzen ditu.
- 47b) Informazio digitala epe luzera gordetzeko eta eskuratzeko beharrezkoak diren artxibo-kontzeptuak ulertzeko eta kontzientziatzeko esparru bat eskaintzen du.
- 47c) Dokumentu digitalen kudeatzaileen eta erabiltzaileen nahitaezko erantzukizunak identifikatzen ditu.
- 47d) Dokumentu digitalen kudeatzaileen nahitaezko erantzukizunak bakarrik identifikatzen ditu.

48 Erantzun hauetatik zein ez da behin betiko artxibo-dokumentutzat hartzen?

- 48a) Dokumentu elektroniko baten paperezko kopia
- 48b) Espediente elektronikoa
- 48c) Datu-basea
- 48d) Bat bera ere ez

49 Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, Artxiboan kontserbatutako dokumentu baten edozein informazio eman daiteke?

- 49a) Bai, betiere, dokumentuak 50 urte baino gehiago badauzka.
- 49b) Bai, edozein informaziotarako sarbidea izateko eskubidea arautu eta bermatzen baitu.
- 49c) Bai, eskatutako informazioa eman daiteke, baldin eta identifikazio fiskaleko datuak ezabatzen badira.
- 49d) Bat bera ere ez

50 Zer legek arautzen du da sektore publikoko informazioaren berrerabiltzea?

- 50a) 39/2015 Legeak
- 50b) 37/2007 Legeak
- 50c) 40/2015 Legeak
- 50d) 3/2018 Legeak

51 Adierazi zein den erantzun zuzena:

- 51a) UNESCOren Memoria del Mundo programa bat da dokumentu-ondarea kontserbatzeko eta zabaltzeko.
- 51b) EUROPEANA Europako artxibo, museo, liburutegi eta ikus-entzunezko bildumen baliabide digitaletarako sarbide bakar gisa jokatzen duen ataria da.



- 51c) BADATOR Euskal Autonomia Erkidegoko artxiboetako dokumentuak kontsultatzeko sistema da.
- 51d) Aurreko guztiak dira zuzenak

52 Adierazi zein den erantzun zuzena. Jarraian aipatzen diren enuntziatuetatik zein ez da Udal Artxiboaren dokumentu-kudeaketaren adierazlea?

- 52a) Idazkaritzako ziurtagiriak
- 52b) Dokumentuen identifikazioa
- 52c) Dokumentuen sarrerak
- 52d) Dokumentuen deskribapena

53 Adierazi zein den erantzun zuzena:

- 53a) Artxiboko zerbitzuak herritarrei eskaintzeko prozesuak kontsulta eta mailegua dira.
- 53b) Artxiboko zerbitzuak herritarrei eskaintzeko prozesua kontsulta bakarrik da.
- 53c) Artxiboko zerbitzuak herritarrei eskaintzeko prozesuak kontsulta, mailegua, erreprodukzioa eta alderaketa dira.
- 53d) Artxiboko zerbitzuak herritarrei eskaintzeko prozesuak kontsulta, erreprodukzioa eta mailegua dira.

54 Eibarko Udal Artxiboaren Zerbitzu-Kartaren arabera

- 54a) Ez da beharrezkoa NANik, pasaporterik edo bestelako identifikazio-dokumenturik aurkeztea.
- 54b) Erabiltzaileek artxiboko edozein dokumentutarako sarbidea izan dezakete doan.
- 54c) Erabiltzaileek nahitaez aipatu behar dituzte dokumentuen erreferentziak, Artxiboko langileen argibideei jarraituz.
- 54d) Dokumentuak kontsultatzeko 18 urtetik gorakoa izan behar da

55 Zer urtetan sinatu zen Eibarko Itun Federala?

- 55a) 1882an
- 55b) 1873an
- 55c) 1869an
- 55d) 1879an



56 XIV. mendean zer demarkaziotan zegoen hasierako Eibarko herrigunea?

- 56a) Marquina de Yuson
- 56b) Soraen bailaran
- 56c) Marquina de Suson
- 56d) Villamayor de Marquinan.

57 Zer erregek eman zion hiru-gutuna Eibarko San Andres hiribilduari?

- 57a) Alfontso X.ak
- 57b) Jaime I.ak
- 57c) Antso IV.ak
- 57d) Alfontso XI.ak

58 Nor hautatu zuten Eibarko alkate 1931ko apirilaren 12an (igandea) egindako hauteskundeetan?

- 58a) Juan de los Toyos
- 58b) Alejandro Telleria
- 58c) Domingo Cortazar
- 58d) Mateo Careaga

59 Eibarko enpresa hauetako zein izan zen estatuko lehen langile-kooperatiba?

- 59a) GAC
- 59b) Orbea
- 59c) Alfa
- 59d) Victor Sarasqueta

60 Zenbat biztanle zituen Eibarrek 1970. urtean?

- 60a) 37.229
- 60b) 23.842
- 60c) 7.650
- 60d) 20.042



ERRESERBAKO GALDERAK

Lehenengo proba:

- 61 Egun baliogabeen zer egutegi aplikatuko da erregistro elektronikotan epeak zenbatzeko?**
- 61a) Erregistro guztietarako Estatuko Aldizkari Ofizialean horretarako argitaratzen dena.
- 61b) Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dena, bertan dauden erregistro guztietarako.
- 61c) Administrazio publiko edo organismo bakoitzaren erregistroaren egoitza elektronikoa zehazten duena.
- 61d) Erregistroa kokatuta dagoen udalerriko udalaren egoitza elektronikoa zehazten duena.
- 62 Pertsonen eskubideei dagokienez, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren III Tituluan jasotakoaren arabera, zein da erantzun ZUZENA?**
- 62a) Tratamenduaren arduradunak ukitua informatu beharko du dagozkion eskubideak egikaritzeko eskura dituen baliabideen gainean. Baliabide horietarako irispideak erraza izan beharko du ukituarentzat. Ukituak beste baliabideren bat aukeratze hutsa ezingo da izan arrazoi eskubidea egikaritzea ukatzeko.
- 62b) Tratamenduaren instruktoreak ukitua informatu beharko du dagozkion eskubideak egikaritzeko eskura dituen baliabideen gainean. Baliabide horietarako irispideak erraza izan beharko du ukituarentzat. Ukituak beste baliabideren bat aukeratze hutsa ezingo da izan arrazoi eskubidea egikaritzea ukatzeko.
- 62c) Tratamenduaren instruktoreak ukitua informatu beharko du dagozkion eskubideak egikaritzeko eskura dituen baliabideen gainean. Baliabide horietarako irispideak erraza izan beharko du ukituarentzat. Ukituak beste baliabideren bat aukeratze hutsa izan daiteke arrazoi eskubidea egikaritzea ukatzeko.
- 62d) Tratamenduaren arduradunak ukitua informatu beharko du dagozkion eskubideak egikaritzeko eskura dituen baliabideen gainean. Baliabide horietarako irispideak erraza izan beharko du ukituarentzat. Ukituak beste baliabideren bat aukeratze hutsa izan daiteke arrazoi eskubidea egikaritzea ukatzeko.



63 Administrazio publikoek, gardentasunaren araudian oinarrituta, ondasun hauek argitaratuko dituzte:

- 63a) Ondasun higiezinaren eta ondasun higigarrien zerrenda
- 63b) Beren jabetzakoak diren ondasun higiezinaren zerrenda baino ez.
- 63c) Administrazio publikoek ondasunen gaineko eskubide errealean bat badute, ondasun horiek baino ez.
- 63d) Beren jabetzakoak diren ondasun higiezinaren zerrenda eta beren jabetzakoak izan ez arren haien gaineko eskubide errealean bat badute.

64 Administrazio Publikoaren administrazio-egintza hauetatik, zein dira erabat deusezak?

- 64a) Gaietatik organo nabarmen eskumengaberen batek emandakoak
- 64b) Eskumena duen organoak baino beheagoko hierarkiako organo batek emandakoak.
- 64c) Lurraldeetatik organo nabarmen eskumengaberen batek emandakoak
- 64d) Aurreko bat bera ere ez.

65 Noiz egiten da entzunaldiaren izapidea? Erantzun ZUZENA aukeratu:

- 65a) Ebazpen-proposamena idatzi eta berehala.
- 65b) Prozeduraren instrukzioak iraun bitartean.
- 65c) Akordioaren aurkaratze-epean.
- 65d) Ebazpen-proposamena idatzi baino lehentxeago.

Bigarren proba:

66 ISADG Arauaren *sarrera-mota* elementua honako arlo honi dagokio:

- 66a) Identifikazioa
- 66b) Oharrak
- 66c) Testuingurua
- 66d) Deskribapenaren kontrola

67 Dokumentu elektronikoen balorazioa egiteko printzipioak

- 67a) Ez dira paperezko dokumentazioarenak bezalakoak.
- 67b) Dokumentazio elektronikoa ez da baloratzen.



- 67c) Paperezko dokumentaziorako erabiltzen diren berberak dira.
- 67d) Paperezko dokumentaziorako erabiltzen diren irizpide batzuk baino ez dira aplikatzen.

68 Zein da kontrolatutako hizkuntzen funtzioa?

- 68a) Indukzioa
- 68b) Normalizazioa
- 68c) Errepresentazioa
- 68d) Denak dira zuzenak.

69 Adierazi Artxiboen Nazioarteko Kontseiluaren Deskribapen Arauen ezaugarri bat.

- 69a) MOREQen garapen bat dira.
- 69b) Eraikuntza teorikoak dira.
- 69c) Integratzaileak dira, deskribapen-sistema bateratu batean.
- 69d) Lagungarriak dira katalogaziorako.

70 Non daude gordeta Eibarko 25 urtetik gorako eta 100 urtetik beherako notario-protokoloak?

- 70a) Bergarako Notario Barrutiko Artxiboan
- 70b) Eibarko notariotzan
- 70c) Eibarko Notario Barrutiko Artxiboan
- 70d) Gipuzkoako Notarioen Elkargoaren Artxiboan